

Berriketan

JOSUNE ARTETXE ETA GARBINE IRIONDO Nagusilan elkarteko boluntarioak

Nahi gabeko bakardadean dauden adinekoen bidelagun



ARENA BAR

adats

ADATS ILEAPAINDEGIAK DEBA
Hondartza kalea 13 DEBA
T. 943 19 27 00

f www.facebook.com/adatsileak
@adatsileak



URDAITEGIA
AITTOLA
HARATEGIA

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

Halal harategia
Fruta-denda / Supermerkatua

Razan



943 574 710 / 688 749 337
Sokagin, 2 behe. DEBA

Urlo

Aholkularitza
Komunitateen
kudeaketa
Inmobiliaria

Tel. 943 192 471 • urlo@urloasesoria.eus
Sokagin, 2 behe. Posta Kutxa 3. 20820 DEBA



Iturkale 2 behea - Deba, Gipuzkoa | 943 19 26 31

Zumardi

pentsioa



Tel.: 943 19 23 68
info@pensionzumardi.com
www.pensionzumardi.com



ITZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

ORAIN

ileapaindegia

943 19 21 09
Hondartza kalea, 2
Deba



*Hondartza ondoan
Urte guzian zabalik*

Nafarroa Plaza • Tel.: 943 192 576
20820 DEBA

Odontologoa
MAITENA ARRIZABALAGA

Odontologoa
NORA UNZETABARRENETXEA

HORTZ KLINIKA



Gipuzkoa Kalea 20, Zarautz

943 830 424 - 653 921 712

GENOVEVA
Arraindegia



Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818



BERRIKETAN 304

2025eko martxoa

Azaleko irudiaren egilea:
Nerea Bedialauneta Alkorta

AURKIBIDEA



9 ARGAZKI GALERIA
Martxoaren 8ko
aldarrikapenek Debako
eta Itziarko kaleak eta
plazak bete zituzten



11 EUSKARALDIA
Zabaldu dute
Euskaraldiaren
laugarren ediziorako
norbanakoen izen-ematea



14 ALBISTEAK
Martxoaren 24tik 28ra
egingo da Zaporeak-en
erronka solidarioa; arroz
luzea jasoko dute Deban



16 ELKARRIZKETA
Nagusilan elkartearen
jardunaz solasean
Josune Artetxerekin eta
Garbiñe Iriondorekin



26 ELKARRIZKETA
Ekiberri Judo Kluba
martxan jarri ondoren,
proiektuaren etorkizunaz
mintzo da Jon Montiel



28 AGENDA
Datozen asteotan egingo
diren jarduerak eta
ekimenak jaso ditugu
atal honetan

Jarrai gaitzazu!



berriketan.eus

Zuhatzza euskara
elkartea

LAGUNTZAILEAK



DEBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

ARGITARATZAILEA

Zuhatzza Euskara Elkarte

HELBIDEA

Ifar kalea, 12 behea. 20820 (Deba)

TELEFONOAK

943 19 13 83 / 632 04 33 22

HEDABIDEAREN E-MAILA

berriketan@berriketan.eus

ELKARTEAREN E-MAILA

koordinatzailea@zuhatzza.com

ERREDAKZIOA

Izaro Aulestiarte, Nerea Bedialauneta

eta Alex Turrillas

KOORDINATZAILEA

Izaro Aulestiarte

PUBLIZITATEA

Joseba Escudero eta Alex Turrillas

LOGOTIPOAREN DISEINUA

Iñaki Elosua

MAKETAZIOA

Maku Oruezabal

TIRADA

1.400 ale

MAIZTASUNA

Hilabetekaria

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

LEGE GORDAILUA

SS/246/2009

ISSN: 2171-7656

Oharra:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA, GUTUNAK eta KOLABORAZIOA ataletan adierazi-takoan erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak berriketan@berriketan.eus helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.

**Etxebizitzaren negozioari ez!
Apirilaren 5ean, Donostiara**

Etxebizitza bat eskuratzeko zailtasunak, jabetzan zein alokairuan, geroz eta ohikoagoak dira debarron ahotan. Ez da harriztekoa. Izan ere, etxebizitzaren eta alokairuen prezioak gora eta gora doaz, soldatak 90. hamarkadatik ia igo gabe dauden bitartean. Datu ofizialen arabera 600 etxe huts baino gehiago egon arren, etxebizitza bat eskuratzeari zailduz doa dirudunak ez garenontzat.

Etxebizitza bat eskuratuz gero, hipotekak edo alokairuak soldataren gero eta zati handiagoa darama; geroz eta sektore gehiagoren pobreziarako joeraren erakusgarri. Bitartean, negozioarako aukera errentagarrietako bat bilakatu da etxebizitza.

Politikarien neurriek ere bide horretan egiten dute lan. Errentistei erraztasunak emanez (salbuespen fiskalak, laguntza publikoak, diru publikoa abaltzat erabiltzea...), sektorearen errentagarritasuna are gehiago handitzen ari dira. Alokatzeko erositateak etxeak inbertsio bikainak dira, eta jabetza pilotzeko joeraren erakusgarri ere bai.

Epe ertain-luzera, arazoa handiagotu besterik ez da egingo. Arazoaren konponbidea etxebizitzaren auzia irabazien arabera kudeatzea da, langileon erabakitze gaitasuna handitzea, eta etxebizitzaren problematikaren hobekuntza beste sektore batzuetan murrizketak egitetik ez dadila etorri bermatzea (osasungintza, prestazio sozialak...).

Egoera honi aurre egiteko, apirilaren 5ean Donostian egingo den manifestaziorako deia egiten dugu Deba Bailarako Etxebizitza Sindikatutik; mobilizazioa Bulebarretik abiatuko da, 12:00etan. Aldi berean, eskerrak eman nahi dizkizuegu sindikatuak Deban antolaturiko ekintza ezberdinetara bertaratu zaretenoi.

Lanerako prestutasuna edota etxebizitzarekin arazoren bat edukiz gero, jarri harremanetan Etxebizitza Sindikatuekin! Harremanetarako telefonoa: 671 19 59 24.

Deba Bailarako Etxebizitza Sindikatua**Amaiak Bat Txirrindulari Taldeak laguntzaileak behar ditu**

Gure esku egon ez arren, 2024ko denboraldian atsedendi txiki bat hartu behar izan genuen, baina Debako txirrindularitza arloko kideok lasterketak antolatzen hasiak gara berriz ere. Beraz, gutun honen helburua herritarrei aurten egingo ditugun lasterketen berri ematea da, eta, bide batez, laguntza eskatzea.

Martxoaren 22an, kadete mailako txirrindulari gazteentzako lasterketa izango da; 10:40ean hasiko da eta partaideek Bergarainoko joan-etorria egin beharko dute (52 kilometro).

Martxoaren 29an, aldiz, junior mailako txirrindulariak batuko dira 49. Amaiak Bat Proban; 86 kilometroko lasterketa egingo dute, 10:15ean hasi eta 12:30ean amaituz.

Eta hirugarren hitzordua apirilaren 27an izango da, proba zikloturista jokatu baina, 08:00etatik aurrera.

Aipatutako lasterketak aurrera eraman ahal izateko jartzen dizkiguten esijentziak gero eta handiagoak dira, eta herritarren laguntza ezinbestekoa da antolakuntzan. Bidegurutzeetan laguntzeko boluntarioak behar izaten ditugu, adibidez, guztia ondo lotu eta txirrindulariek minik hartu ez dezaten.

Antolaketan laguntzeko prest baldin bazaudete, jarri harremanetan txirrindulari taldeko edozein kidearekin, mesedez, ezagutuko duzue norbait eta... Mila esker!

Amaiak Bat Txirrindulari Taldea



Debabarena

GOURMET

Martxoaren 28tik apirilaren 13ra

7 plateraz osatutako dastatzeko menua

65€

**Baratze - Belaustegi - Kanala
Pikua - Txurruka - Urgain**












MAITE RODRIGUEZ

Gidabaimena eta perretxikoak

Konturatu gabe, gidabaimena iraungita daukat eta atzerritik nola berriztatu pentsatzen nabilela, poloniarrak etorri zaizkit burura.

Zuek ere hizketan zeri buruz ari naizen ulertu ahal izateko, datu batzuk eman beharko dizkizuet lehenengo: 2004an Polonia Europar Batasunean sartu zen; Irlandak, Suediak eta Erresuma Batuak poloniarrei mugak zabaldu zizkieten urte berean. 2007rako 250.000 poloniar bizi ziren Irlandan.

7 milioi biztanle ditu Irlandak, errepublika eta iparraldekoa kontuan hartuta. Poloniarrei mugak zabaltzeak aldaketa dezente ekarri zituen; poloniera hirugarren hizkuntza erabiliena bilakatu zen eta dendak janari poloniarra saltzen hasi ziren, adibidez. Nire ikuspuntu egozentrikotik, poloniarren perretxikoekiko zaletasun amorratua da alderik txarrena.

Zer zerikusi du gidabaimenak horrekin guztiarekin? Bada, 250.000 poloniar horien artean gidari txar bat etorri zela, Prawo Jazdy. Prawok 50 trafiko-delitu baino gehiago zeuzkan bere izenean Irlandan, eta ezin zuten atxilotu. 2007an, An Garda Síochának (Irlandar Errepublikako polizia) trafikoko polizia guztiei zirkular baten bidez adierazi zien *Prawo Jazdy* gidabaimena dela polonieraz, eta ez izen-abizen pare. Nolako barreak egingo zituzten poloniarrek hedabideetan agertu zenean.

2008ko krisiaren ondoren, poloniar askok Irlandatik alde egin zuten. Beste askok hemen jarraitzen dutela agerikoa da: dendetan Europa ekialdeko janaria saltzen jarraitzen dute, eta udazkenean basoan poloniera entzuten denean, otarra arinarekin itzultzen gara etxera.

"2004an Polonia Europar Batasunean sartu zen; Irlandak, Suediak eta Erresuma Batuak poloniarrei mugak zabaldu zizkieten urte berean"

Informatika
Tresneria
informatikoa



Elektronika
Osagai
elektronikoak

Informatika JLC Elektronika
Maxpe kalea, 7 - behea | 20820 DEBA

Tel.: 943 19 17 83
Faxa: 943 19 18 36
Mugikorra: 686 939 601

informatikajlc@informatikajlc.com



atari
INMOBILIARIA

943 19 22 63
atari@atarideba.com
www.atarideba.com



ieraenea
sareanda

"maite ditut nire/gure bastorrak"

Lersundi kalea 6- 20820 DEBA
Tel: 943 53 95 20- E-mail: ieraeneda@gmail.com



LAMARIANO
Oinetakoak

Itur kalea 14 - Deba
943 19 12 52



1950 eta 1960ko hamarkadak

Trenbideetako lanbideak galbidean

Egilea ezagutzen ez dugun arren, argazkia 1959koa da, antza. Eta dokumentu esanguratsua dela esan genezake, interesgarria ikuspegi soziologikotik. Debako tren geltokiko langileek Iriondo jatetxean egindako bazkariari dagokio (garai hartan Ferrocarriles Vascongados SA enpresakoak ziren).

Guztira 22 mahaikide alai ikusten ditugu irudian, trenbideko langileak ziren gehienak. Gizonezkoen artean, honako hauek ikus ditzakegu, besteak beste: Rafael Pastor, Federico Varela, Enrique Sainz, Fidel Carrillo, Manuel Salegui, Benjamin Lazpita, Joaquin Escudero, Leon Azpiazu, Greño, Martin Beristain, Pedro Ruiz, Manuel *Gaspar*, Felix Narro, *Saka...* Emakumeen artean, berriz, Iriondo jatetxeko Mari

Kontxi Indamendi eta Angela de la Peña zerbitzariak agertzen dira.

Geltokiko buruak, txartel-zulatzaileek eta saltzaileek, faktore-lanpostuetakoek, orratzainek, balaztazainek, trenbidearen mantentze lanetarako langileek, zaindarien, ekipajeaz arduratzen zirenek, barrerazainek... osatzen zuten Debako lantaldea.

Aipatutako lanpostu horietako gehienak desagertu egin ziren trenbideen modernizazioaren eta automatizazioaren ondorioz. Guk dakigula, Debako geltokiak ez du langilerik gaur egun, ez behintzat jendaurreko jardunean. Zenbat aldatu diren gauzak!

Alex Turrillas Aranzeta



MANEX ASTIGARRAGA

Debari buruz kontatzen ez dizutena

Gutxi hitz egiten da gai batzuetaz. Lotsagatik, beldurragatik, inor ez mintzeko... ez dakit. Badakit gai sensiblea dela, baina arriskatuko naiz esaten Mediterraneoaren beste aldetik gurera heldu eta arazoak sortzen dituenik badela. Hilketak, *no go zone* deiturikoak, bertakoekin mestizatzea...

Gainera, borondate oneko talde batek baino gehiagok jaten ematen die, askotan, instituzioen laguntza zein oniritziarekin. Arazo bat dugu. Ez hemen bakarrik. Gutxienez, Europa osoan. Deban ere bai. Aske dabilzan katuak.

Estatu Batuetan, milaka milioi hegazti hiltzen dituzte urtero (populazioaren %15) eta are ugaztun txiki gehiago. 2011rako zerrenda gorriko 33 hegazti, narrasti eta ugaztun espezieren desagerpena eragin edo bultzatu zuten (desagerpenen %14).

Baserrietako katuek inguruak sarraskitzen dituzte (paradoxikoki, arratoiak ez) eta bertako basakatuarekin hibridatzen dira, kutsadura genetikoa eraginez. Debako eskoilera *no go zone* bat bilakatu da hegazti txikientzat. Bertara gerturatuz gero, agian, ez duzu kontatuko. Aurrez makina bat txirritxo, txolarre eta bestelako txoriri gertatu zaion bezala.

Kudeaketa ez da erraza. Baina aitor dezagun antzutze kanpainak egitea eta elikagaien kontrola burutzea ez dela kolonia bat kontrolatuta edukitzea. Dibertsitatearentzat kaltegarriak eta arriskutsuak diren horiek erabat kontrolpean eta ingurunetik isolatuta egon behar lukete. Faxistek, arrazistek eta... katuek ere bai.

Arazo bat dugu. Arazo bat dugu katu basatuekin eta aske ibiltzen direnekin. Norbaitek esan behar zuen.

"Dibertsitatearentzat kaltegarriak eta arriskutsuak diren horiek erabat kontrolpean eta ingurunetik isolatuta egon behar lukete"



ekodenda,
dietetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia - Osteopatia
- * Gimnasia hipopresiboak
- * Podologia
- * Dietista

Leisundi, 14 943 19 24 42 sasoiiko@hotmail.com



Zestoa
Gesalaga kalea, 22 behea
943 89 70 99

Zumaia
P. Etxezarreta, 15 behea
943 11 71 55

M. Belen Arrue Lizarralde
Abokatua

Lege zerga, kontabilitate, merkataritza eta lan aholkularitza
Enpresak / Autonomoak

Finken administrazioa, jabeen erkidegoak eta higiezin kudeaketa

asesoriarin@asesoriarin.com

Arrazak ez dira existitzen, arrazakeria existitzen da

JOSE LUIS ALBIZU

Arrazakeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna da martxoaren 21a. Egun horretan, 1960an, apartheid salatzeko Hego Afrikako Sharpeville hirian burutzen ari zen manifestazio baketsu baten aurka tiro egin zuen polizia. 69 pertsona erail zituzten, eta ehunka zauritu.

Gizakion artean bereizketak egiteko eta batez ere diskriminatzeko ezaugarri nagusietako bat izan ohi da azalaren kolorea. Era berean, emakume izatea, pobre izatea edo beste kultura batekoa izatea ere diskriminaziorako ohiko arrazoiak izaten dira. Genetika zientziak erakutsi du gizakiok DNA partekatzen dugula, giza arraza bakarra dagoela eta desberdintasunak ez datozela geneetatik, gure jatorrizko lekuetako esperientzia sozial eta kultural desberdinetatik baizik.

Gaur egun, azalaren koloreak eragindako arrazakeriaren ordez, arrazakeria kulturala nagusitzen ari da. Azalaren kolorea ezin bada aldatu, kultura ere "finkoa" dela eta ez dela aldatzen ondorioztatzea pasatu gara. Eta, ondorioz, ezinezkotzat jo dezakegu "gugandik urrun dauden kulturak" dituzten pertsonak integratzea, baldin eta gure kulturaren murgiltzen ez badira.

Koexistentziatik bizikidetzara

Deban, gizartearen, harremanak ez dira kulturen artean modu abstraktuan ematen; jatorri eta esperientzia kultural ezberdineko pertsonen artean ematen dira harremanak, orain lurralde partekatutako batean bizi garen artean. Atzeritarren Legeak ezartzen duen desberdintasun soziopolitikoak gainditzea da koexistentziatik bizikidetzara pasatu eta "debar berrien" inklusiorako bidean aurrera egiteko erronkarik handiena, baina beti dago tokian tokiko urratsak emateko aukera. Udalak errolda sozialarekin harrera egitea, adibidez, gizarte-zerbitzuak edo laguntzak lortu ahal izateko urrats legal garrantzitsuak da:



2-3 hilabetera osasun-txartela eduki ahal izatea (osasun publikoarentzat ere interesgarria dena), lan kontratua eta bizileku baimena lortzeko beharrezkoa den 2-3 urteko epea igarotzen hastea... Eta etxebizitza? Hori guztion arazoa da, bertakoena eta debar berriena.

Herri mailan, eguneroko bizitza auzokideen arteko elkarrekintzen bidez zehazten da, kalean "agur" edo "aupa" esanez, edota tokiko erakundeetan parte hartzen; eskola, kirol, lan... eremuak estereotipoak, gezurrak eta fobiak apurtzea errazten duten espazioak dira. Anaiarteko elkarrekintza batean denok ikasten dugu, elkar ezagutzen dugu eta elkarrekin bizitzetik bizikidetzara igarotzen gara. Atzeritarren Legearen hormak sortzen dituen desberdintasunak ahaztu gabe, alde guztien ahalginearrekin, Deba inklusiboaren eta anitzaren alde lan egiteko erreferente izan behar dute giza eskubideek.

Euskaldunok Argentinara, Venezuelara, Txilera, Frantziara, Alemaniara... emigratu dugu eta migratzen jarraitzen dugu. Migrazioa ez da behin-behineko fenomeno bat, egiturazko errealitate bat baizik, giza eskubidea baita bizitza hobea nahi izatea. Lanerako legezko sarbidea izateak, duintasunez bizitzeak, aniztasun kulturala errespetatzeak... bertakoei eta migratzaileei Deba plural eta inklusibo bateko kide garelako sentitzeko aukera ematen digute, betetzen baldin badira betiere.

Bi "arraza" baino ez daude: dutenak eta ez dutenak. Oso erraza da "ni ez naiz arrazista" esatea; gero "baina" bat sartzen diogunean izaten da okerrera.

"Migrazioa ez da behin-behineko fenomeno bat, egiturazko errealitate bat baizik, giza eskubidea baita bizitza hobea nahi izatea"

Aldarriz bete dituzte kaleak eta plazak Martxoaren 8ko mobilizazioetan

Beste urte batez, Martxoaren 8a aldarrikapen eta borroka eguna dela gogorarazi dute herritarrek.

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira antolatutako egitaraua ez da egun bakarrera mugatu, baina aldarriek Martxoaren 8an hartu zituzten kaleak. Debako

Udalaren ekimenez eguerdian egindako elkarretaratzearekin abiatu ziren mobilizazioak, eta arratsaldean manifestazioak egin ziren Itziarren (Itziarko Erasoen Aurkako Taldeak deituta) eta Deban (DIT feministaren ekimenez). Kalean Kantuzen emanaldia ere izan zen.





**INGENIARITZA
DUALAREN ESKOLA**
ESCUELA DE
INGENIERÍA DUAL

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Markel López Vasco

Elgoibartarra. 22 urte.

Berrikuntzako Ingeniaritza Duala
Ikasle ohia

Berrikuntzako Ingeniaritza Gradu Duala amaitu berri duzu. Esan ahal diguzu zergatik aukeratu zenuen Elgoibarko Ingeniaritza Dualaren Eskolan ikastea?

Batxilergo zientifiko-teknologikoko ikaslea nintzela, banekien ingeniarietza ikasi nahi nuela, arloarekiko nuen interesagatik eta eskaintzen dituen lan-aukera onengatik. Hiru arrazoi nagusirengatik aukeratu nuen karrera hau: berrikuntzan nuen interesagatik (soluzio berriak sortu, hobetu edo diseinatu); eredu dualagatik (karrerako bigarren urtetik lan eginez nire laneratzea erraztuko zelako); eta unibertsitatea bizi naizen herrian bertan edukitzearen erosotasunagatik.

Nolako esperientzia izan da?

Positiboa, eta aldi berean, trinkoa. Positiboa, ia hasieratik izan dudalako harremana enpresarekin. Horrek lagundu dit ikasitakoa ulertzen, eta baita ere bizitza errealean ikusten teoria hori praktikan aplikatzen dela eta nola. Bestalde, gogorra izan da, karrera honek dakarren lana eta dedikazioagatik: Hiru egun lanaldi osoan lan egitea eta beste bi egunetan 8 orduz ikastea gogorra da, eta horri gehitu behar zaizkio ordu-tegi horretatik kanpo egunean eraman behar dituzun lan eta proiektu guztiak.

Espero zenuena bete al da? Zure espektatibak bete al dira? Zerbait aldatu zen lau urtez ikasten egon ondoren?

Bai, neurri handi batean. Ikasketak praktikoa espero nuen, eta proiektuen bidez lortu dut hori. Gainera, karrera amaitu aurretik lan esperientzia irabazi dut. Bestalde, karreraren edukietan espezializazio handiagoa espero nuen, baina lau urteren ondoren konturatu naiz ingeniarietza hainbat arlotan arazoak konpontzeko ezagutza teknikoak eta trebetasunak irakasten dizkizun karrera dela, eta benetako espezializazioa lan esperientziarekin batera iristen dela.

Lan esperientzia izateko aukera eman dizu Eredu Dualak. Berrikuntza proiektuetan lan egin duzu. Zure ustez, lagungarria izan al da amets profesionalak betetzeko?

Eredu dualari esker, enpresetan dauden benetako arazoak ikusi ahal izan ditut, baita horiei aurre egin ere, trebetasun teknikoak eta arazoak ebaztekoak garatuz, praktikak bakarrik eskain dezakeen moduan. Beraz, helburu profesionaletara hurbiltzen lagundu dit, ikasketak lan esperientziarekin eta mundu profesionaleko arazoak aurre egiteko prestakuntza hoberekin amaitu baititut.

Berrikuntza Ingeniaritzako ikasleen bizipenak

Zein enpresatan garatu duzu zure profil profesionala? Azaldu ahal dizkiguzu zure Ikerketa Zientifiko Teknikoa eta IZT Gradu Amaierako Lana?

Goizper S. Coop. enpresan egin dut duala, eta han garatu dut profil profesionala, produktu-ingeniari gisa. Goizperren produktu baten osagai mekaniko nagusien higadura goiztiarraren arazo bati aurre egitea izan zen nire 3. mailako IZTa, zehazki biraketa-mahaietan, horiek abiadura handian biratzen hasten zirenean. Proiektu honetan, arazo honi buruzko artearen egoeraren ikerketa bat egin behar izan nuen, produktuan egon zitezkeen aldaketak edo hobekuntzak planteatzeko. Hobekuntza horiekin gero balioztatzea egiteko, nire kasuan esperientziala, Goizperrek entsegu banku bat baitu produktuak entseatzeko. IZT horri esker, zenbait muga identifikatu ziren osagai mekanikoetako baten diseinu geometrikoan eta produktuaren osagaien zehaztasunean. Hori dela eta, Goizperrek aplikazio azkarretarako biraketa-unitateen familia berri bat garatzea erabaki zuen, merkatuaren abiadura eta zehaztasun eskakizunak gainditzeko. Testuinguru horretan, 4. mailan, nire GRALak jarraipena egin zion IZTri, eta produktuaren analisisari ekin nion, baita familia berriaren tarteko tamainetako baten kalkuluarri eta diseinuarri ere.

Atzerriko lan praktika egonaldia ere egin duzu

Goizper France enpresan izan nintzen ia hiru hilabetez, bezero frantziarren eskaerak garatzen eta diseinatzen, eta arazo teknikoak konpontzen. Egonaldiak lagundu zidan profil profesionaleko gaitasun batzuk hobetzen, lanerako autonomia handiagoa hartzen eta lankide teknikari komertzialen profila ulertzen. Maila pertsonalean Frantziako desberdintasun kulturaletara egokitu nintzen, eta ingelesezko komunikazioa landu nuen.

Gradu hau ikastera nor animatuko zenuke?

Ingeniaritzaren alorrean interesa duten mutil zein neska animatuko nituzke; prestakuntza praktikoa nahi dutenak eta laneratze ona ziurtatzeko beren lanarekin konprometitu daudenak.

Gehiago jakin nahi?

Zatuz apirilaren 5eko
ateak irekitzeko ekitaldira



Euskaraldian parte hartzeko izen-ematea zabaldu dute



Martxoaren 15ean zabaldu zuten Euskaraldian izena emateko epea, euskararen aldeko ariketa kolektiboa ofizialki hasteko bi hilabeteren faltan, hain justu. Eta, biharamunean, ekitaldi berezia egin zuten Deban, herri batzordearen ekimenez. Egitasmoari buruzko informazioa ematearekin batera, Euskaraldiaren Debako hamaikakoa ere aurkeztu zuten.

Aurreko Euskaraldiak udazkenean egin izan diren arren, udaberrian izango da aurtengoa: maiatzaren 15etik 25era. Eta herritarren izen-ematea abian da dagoeneko. Internet bidez eman daiteke izena (euskaraldia.eus webgunean), baita kalean jarriko diren mahaletara hurbilduz ere. Martxoko, apirilko eta maiatzeko zenbait egunetan, adibidez, Foruen Plazan izango da izena emateko aukera.

Egitasmoaren mamia bera ez da aldatuko. Hizkuntza ohiturak aldatzea izango da helburua, euskararen alde. Herritarrek *ahobizi* eta *belarriprest* rolak izango dituzte aukeran, izena emateko eta parte hartzeko. *Ahobiziek* euskara ulertzen duten guztiei euskaraz hitz egin beharko diete, haiek beste hizkuntza batean erantzunda ere; eta ezezagunei ere euskaraz hitz egingo diete (lehen hitza, gutxienez), Euskaraldiko egunetan. Euskaraz hitz egiteko gai izan ez arren ulertzen dutenek eta haiekin euskaraz hitz egitea nahi dutenek, berriz, *belarriprest* rola aukeratuko dute.

Debako hamaikakoa

Elkar mugituz egingo dugu lelopean iritsiko da Euskaraldia. Euskararen erabilera aktibatuko duen mugimendua sortu nahi dute antolatzaileek, eta norabide horretan lanean hasia da Debako herri batzordea ere.

Martxoaren 16an ekitaldia egin zuten Plaza Zaharrean eta egitasmoa Deban sustatuko duen hamaikakoa aurkeztu zuten bertan. Debako Euskaraldiak hamaika enbaxadore hauek izango ditu ekimena hauspotu eta herritarren parte-hartzea sustatzeko: Laura Solozabal, Igotz Alcorta, Irati Majoral, Ralph Horton, Edyta Koronczewska, Ianire Garate, Paul Garcia, Juanma Iparragirre, Kontxi Basterretxea, Fernando Urain eta Olatz Arriola.

Laura Sotogabal

"Euskarari bultzada bat eman nahi diot nire **egunerokotasunean**"

Gasteiztarra da jaiotzez eta unibertsitate garaian animatu zen euskara ikastera, 22 urte zituela. Harrezkero, "euskaldun berria" dela dio. Orain, euskaltegian dabil, euskarazko C1 maila lortu nahian.

Aurten *ahobizi* rola hartzea erabaki du. Beretzat "sekulako erronka" izango dela aitortu du, batez ere lan eremuan, "bertan asko kostatzen baitzait euskarari eustea".



Ralph Horton

"Euskara ondo ikasteak **hain atzerritar ez sentitzeko** balio dit"

20 urterekin etorri zen Euskal Herrira, eta ordutik euskararekin izan duen harremana "luzea eta konplikatu" izan dela azaldu du. Askotan aritu da euskara ikasten, eta beste hainbatetan utzi du.

Aurten, *ahobizi* izango da, "nire euskara maila hobetzeko mintzapraktika egiteko beharra sentitzen dudalako". Gainera, egindako saiakera guztien ondoren, badaki azkenean euskaraz ondo hitz egitea lortzeak zoriontsu egingo lituzkeela bere senideak.



Ianire Garate

"Euskaraz bizi naizen arren, hamaika egunez euskarari eustea oso zaila iruditzen zait. Erronka polita izango da **gaztelaniara jotzeko ohitura aldatzen saiatzea**"

Euskararekin hazi eta hezia, Ianire euskaraz aritzen da lagunekin, familian zein lanean, baina asko kostatzen zaio hizkuntzari beti eustea, gaztelaniara jo gabe.

Euskaraldian parte hartuko du, euskararen erabilera bultzatzeko ariketa polita dela uste duelako. Erronka handiena ile-apaindegian, bezeroekin eta kuadrilla-koekin izango duela aipatu du. *Ahobizi* rolean ariko da.



Igor Alcora

"Euskara primeran ulertzen dudan arren, **asko kostatzen zait hitz egitea.**

Haurrak saskibaloian entrenatzen ditut, eta haiekin **euskaraz aritzeko gaitasuna izatea gustatuko litzaidake"**

Gaztelaniaz hitz egin izan du beti, baina haurrak saskibaloian entrenatzen dituenetik hizkuntza ikas- teko beharra sentitu duela aitortu du.

Jendea gaztelaniaz zuzentzen zaio, eta hori aldatzea gustatuko litzaioke, bai berak ikas dezan, bai jendea gustura senti dadin. Horregatik, *belarriprest* izango da aurtengo Euskaraldian.



Edyta Koronczewska

"**Euskal Herrian bizitzeko euskara ikasi behar dudala uste dut.**
Gainera, asko gustatzen zait"

Sortzez poloniarra da eta 14 urte daramatza Euskal Herrian. Tabernaria da lanbidez. Iaz hasi zen euskara ikasten, eta orain A2 maila lortu nahian dabil. Aurtengo Euskaraldian *belarriprest* izango da. "Oraindik ez naiz euskaraz ondo moldatzen eta, beraz, aurrerapausoak egin nahi nituzke. Ariketa honek asko lagunduko didala uste dut", nabarmendu du.



Herriko kuadrillak elkarrekin jolasean

Euskaraldia gerturatu ahala, herriarren motibazioa sustatzeko hamaika ekimen egingo dira Euskal Herrian, eta Debako herri batzordeko kideak ere mugimendua sortu nahian dabilta lanean.

Proposamen berritzailea aurkeztu berri dute: Euskaraldiko kuadrillen arteko jolasak. Azaldu dutenez, "herriko kuadrillak Euskaraldira gogotsu iristea" da ekimenaren helburu nagusia. Horretarako, bi di-

namika antolatuko dituzte. Batetik, jolas presentzialak egingo dira; eta, bestetik, kuadrillen arteko lehiaketa jarriko dute abian.

Jolas presentzialetan edonork parte hartu dezake (taldean edo banaka). Martxoaren 28an, apirilaren 4an eta apirilaren 11n egingo dira saioak, Plaza Zaharrean.

Lehiaketak, berriz, hiru asteko iraupena izango du, apirilaren 28tik maiatzaren 17ra. Aste bakoitzean

hiru erronka bete beharko dituzte partaideek, ahalik eta puntu gehien lortzeko helburuz, eta Debarren Egunaren bezperan jokatu da aurrez aurreko finala.

Antolatzaileek ohartarazi dute lehian parte hartu nahi duten lagun taldeek izena eman beharko dutela aurrez. Martxoaren 28an hasi eta apirilaren 27an amaituko da izen-ematea, labur.eus/kuadrillakeuskaraldia estekan.

Martxoaren 24tik 28ra izango da Zaporeak-en erronka solidarioa



Aurtengo erronkaren aurkezpen ekitaldia. ETAKITTO

Beste urte batez, Debarreneko Zaporeak erronka egingo dute aurtentzen ere. Helburu argia du ekimenak: Lesboseko (Grezia) kanpalekuetan dauden errefuxiatuei janari duina ematen jarraitu ahal izateko elikagaiak eta dirua biltzea. Egitasmoaren zazpigarren edizioa izango da eta 50.000 kilo janari batzeko erronka jarri diete herritarrei; hau da, iaz lortutakoaren bikoitza.

Bilketa martxoaren 24tik 28ra egingo da eskualdean, eta herri bakoitzean elikagai jakin bat bilduko dute. Deban, arroz luzea jasoko dute

Lizaso eta Eroski supermerkatuetan, baita Luzaro ikastetxean ere. Gainera, aipatutako leku horiei beste bilketa gune bat gehituko zaie bi eguntan. Zehaztu dutenez, hilaren 28an (18:00etatik 20:00etara) eta hilaren 29an (10:00etatik 12:00etara), udaletxe azpiko arkupeetan egongo dira arroz luzea batzen.

Tuper solidarioa

Erronkari amaiera emateko, tuper solidarioa egingo dute hilaren 29an. Ermuko Orbe Kardinalaren Plazan izango da, 14:00etatik 15:00etara.

Hiru eguneko irteera antolatu du Zuhatza-Kolore Anitzek maiatzeko zubirako

Askizuko aterpetxera hiru eguneko txangoa prestatzen dihardu Zuhatza-Kolore Anitz Aisialdi Taldeak. Irteera maiatzeko zubian izango da eta, oraingo honetan, "ekintza ugari, barre algarak, gaubelak eta beste hainbat jarduera" egiteko proposamena dakarte aisialdi taldeko begiraleek.

Zehaztu dutenez, maiatzaren lehen goizean abiatuko dira Getaria aldera, eta hilaren 3an itzuliko dira Debara, bazkal aurretik.

Plaza mugatuak

Deialdia Lehen Hezkuntzako 4. mailatik 6. mailara bitarteko ikasleei zuzenduta dago, eta parte hartu nahi dutenek martxoaren 24tik apirilaren 3ra bitartean egin ahal izango dute izen-ematea, berriketan.eus/koloreanitz webgunean. Gogorarazi dutenez, plaza mugatuak izango dira eta zozketa bidez esleituiko dira. Era berean, irteera aurrera eramateko gutxieneko haur kopuru bat ezarriko dutela azaldu dute.

Zabalik da Errigoraren udaberriko kanpaina, 'Beste modura, denona da onura' lelopean

Beste modura, denona da onura lelopean hasi du Errigorak udaberriko kanpaina. Martxoaren 26an amaituko da Nafarroako hegoalde eta erdialdeko produktuak eskatzeko epea, eta eskaerak Errigora.eus webgunean egin behar dira.

Produktu aukera zabala eskaintzen dute oraingoan ere: "Oliba-olio birjina estra, ardoak eta arroz-, pas-

ta-, lekale- eta kontserba-sortak eskatzeko aukera dago, ekoizlearen jatorrizko prezioan eta euskaraz etiketatuta". Olibo bost litroko bidoietan eskuratu daiteke, eta kontserbak hamabi ontziko sortetan.

Produktuak Deban jasotzeko aukera izango dute Zuhatza Euskara Elkarteak bazkideek. Maiatzaren 7an egingo da banaketa.



Martxoaren 28an 'Liburutegiak gaur eta bihar' mahai-ingurua egingo dute Kultur Elkartean



Liburutegia Denontzat Taldeak liburutegiari buruzko hausnarketa partekatua sustatu nahi du udaberrian. Ondoko galderak jarri nahi dituzte gogoetaren erdian: "Zer izan da liburutegia? Zer da? Zer izan daiteke?".

Helburu horrekin antolatuko dituzten ekimenen baitan iragarri dute, hain justu, martxoaren 28ko mahai-ingurua. 19:00etan izango da, Kultur Elkartean. Oñatiko udal liburutegiko zuzendari Arantzazu Ibarrondok gidatuko du saioa eta lau hizlari izango

dira bertan: Igor Idoeta Markina-Xemeingo udal liburutegiko liburuzaina, Andoni Olaetxea Getariko udal liburutegiko liburuzaina, Asun Agiriano Arrasateko udal liburutegiko liburuzaina, eta Geaxi Ezpeleta Elgetako udal liburutegiko liburuzaina.

Mahai-ingurua herritar guztiei zuzenduta dago, eta zaintza zerbitzua egongo da saioak iraun bitartean. "Ekimenaren helburua Debako herritarrek liburutegi eredu desberdinak ezagutzeko da, bereziki haur eta gazte liburutegiak. Esperientzia berriak ezagutu eta hausnarketa bultzatu nahi dugu, eta Debako liburutegia hobetzea da azken xedea", laburbildu dute antolatzaileek. Horiek hala, solasaldian hainbat gai buruz jardungo dute liburuzainek: liburutegien funtzioa, ekintzak eta tailerrak, espazioaren antolaketa, zailtasunak eta erronkak...

Berataratzen direnei mokadua emango diete 18:30ean, eta Liburutegia Denontzat-en poltsak izango dira salgai.

LABORAL Kutxa  eta AMA Tolosa  -k aurkezten dute:

BABESLEAK

Partekatutako balioetan oinarritutako harremana.


LABORAL Kutxan eta AMA Tolosan bat gatoz gure lurra eta nortasuna babesteko konpromisoarekin.

Eta, espiritu horrek bultzatuta, **oso zozketa berezia** egingo dugu:

AMA Tolosako **4 esperientzia gastronomiko** eta **2 laguntzako gau bateko egonaldia nekazaritza-turismoko establezimendu batean***.



HARTU PARTE HEMEN:
laboralkutxa.com/eu/babesleak-ama-tolosa



*LABORAL Kutxaren bezero diren 18 urtetik gorako pertsona fisiko guztiak hartuko dute parte zozketan, baldin eta 2025eko martxoaren 16tik apirilaren 20ra bitartean mezu elektronikoko galderari erantzuten badiete. Zozketa, AMA Tolosa jatetxeeko esperientzia gastronomikoan 4 sorta, 2 laguntzat bakoitza, eta gosaria barne duen 2 laguntzako ostatu-gau bat, KORTETA AGROTURISMOA establezimenduan, 2025eko maiatzaren 10erako. AMAko lantegia maiatzaren 10eko arratsaldean izango da, 18:30 aldera, eta, ondoren, afaria zerbitzatuko da. Joan-etorriak ez dira sartzen. Zozketaren data: 2025eko apirilaren 22a. Ikusi zozketaren oinarriak laboralkutxa.eus webgunean.


LABORAL
 kutxa

Bada beste modu bat

“Elkarlanean aritzen gara udaleko gizarte zerbitzuekin, betiere haien beharren arabera laguntza eskainiz”

JOSUNE ARTETXE ETA GARBIÑE IRIONDO • Nagusilaneako boluntarioak



Donostian sortu zen Nagusilan Elkartea, 1995ean, eta zazpi urte beranduago (2002an) sortu zuten Debako ordezkariak. Hamar lagunek osatzen dute herriko taldea eta boluntario lanetan adinekoei laguntza eta babesa ematen aritzen dira. Nagusilaneako Debabarreneko ordezkariak birritan jaso dute Debegesa garapen agentziak eskualdean banatzen dituen Gure Balioak saria, urteotan egindako lanaren aitortza gisa.

Nagusilaneako Debako boluntarioak Eguneko Zentroan aritzen dira batez ere, eta astean bitan egiten dituzten bisitak "sakratuak" direla diote Josune Artetxek (Arroa Goia, 1955) eta Garbiñe Iriondok (Deba, 1934). Azaldu dutenez, ahal dutenean, bisitan joaten dira inguruko herrietako zaharren egoitzetara ere, bertan daudenei laguntasuna eman eta konpainia egitera.

Zer da Nagusilan? Zein da elkartearen helburu nagusia?

Garbiñe Iriondo: Jardunean duela 22 urte baino gehiago hasi ginenetik, beharra duten adinekoei laguntza eskaintzea izan da helburu nagusia. Gure egitekoa nahi gabeko bakardadean bizi direnei denbora eskaintzea eta konpainia egitea da batez ere.

Zein da zuen eguneroko dinamika?

G.I.: Abuztuan izan ezik, asteartero eta ostegunero Eguneko Zentrora joaten gara bisitan, 15:30etik 16:30era. Ikusi besterik ez dago zein pozik jartzen diren! Denborak hegan egiten du, eta haiek ere hala sentitzen dute; sarritan bisita laburregia iruditzen zaie. Askotan, bisita luzatzeko eta denbora gehiago geratzeko eskatzen di-

gute, baina merienda ordua iristen denean joan behar izaten dugu.

Zer egiten duzue Eguneko Zentrora astero egiten dituzten bisita horietan?

G.I.: Denbora gutxi egoten gara, baina normalean kinan aritzen gara jolasean.

Josune Artetxe: Norbaiten urtebetetzea denean, ospakizun berezi bat antolatzen dugu. Tarta, opari eta guzti agertzen gara gu. Jose Luis Albizu Nagusilaneako boluntarioa ere txistuarekin etortzen da eta guztiok batera kantatzen diogu *Zorionak zuri* eguneko protagonistari. Gainera, urteko ospakizun berezietan—Gabonetan, Inauterietan eta antzeko ekitaldietan—festatxoak egiten ditugu, dantzak eta abar. Iruditzen zait une horiek benetako bizipoza ematen dietela.

Bestelako bisita batzuk ere egiten dituzue, ezta?

J.A.: Bai, Debako eta Itziarko adinekoei dauden zaharren egoitzetara joaten gara, Eibarrera, Mutrikura, Zumaiara eta Donostiara, adibidez. Normalean, taldean joaten gara bisita horiek egitera. Gainera, ni, pertsonalki, astebururo joaten naiz Zumaiako zahar-etxean dauden herritarrak bisitatzen.



Josune Artetxe (ezkerrean) eta Garbiñe Iriondo (eskuinean) Debako Eguneko Zentroaren aurrean.

Urtean zehar beste jarduerarik egiten al duzue?

G.I.: Elkarlanean aritzen gara udaleko gizarte zerbitzuekin, betiere haien beharren arabera laguntza eskainiz. Bakarrik dagoen pertsona batek medikuarengana edo dentistarengana joateko laguntza behar duenean, adibidez, gure gain hartzen dugu ardura. Askotan, bakarrik bizi den jendeak ez du halako gauzak egiteko laguntzarik izaten, eta, egia esan, ez dakizu nola eskertzen duten laguntza txiki hori.

J.A.: Bestalde, Zilarrezko Haria zerbitzua ere abian dagoela gogorarazi nahi nuke. Doako zerbitzu horren birtatez, Nagusilane bakardadean bizi diren adinekoei telefono bidezko (900 71 3771) solasaldi bat eskaintzen die, konpainia egiteko. Adinekoen intereseko gaiet buruz hitz egiten dute eta, horrela, bakarrik sentitzen diren adineko askok bizi duten hutsune sozial hori nolabait betetzen saiatzen gara.

Zenbat zarete herriko taldean?

J.A.: Hamar boluntario gara guztira, berriki taldera batu direnak kontuan hartuta.

Jende gehiagoren laguntza behar duzue?

G.I.: Adinez oso nagusiak gara gehienok, eta, horregatik,

“Zerbait ondo egiten dugu, nonbait, gutaz oroitzeko eta egiten dugun ahalegina birritan saritzeko; norbaitek baloratzen du gure lana”

ez gaude lehen bezain sasoiko. Laguntzeko prest dauden bi lagun berri etorri zaizkigu, eta horrek asko poztu gaitu. Hala ere, gu ordezkatzeko eta lekukoa hartzeko prest dauden belaunaldi berrien beharra dugu.

J.A.: Oso ondo etorriko litzaiguke jende gehiagoren laguntza, behar guztiei erantzun ahal izateko. Zerbitzu asko eskaintzen ditugunez, aberasgarria izango litzaiteke, adibidez, teknologia berriak erabiltzen dakien jende gaztea hurbiltzea.

Zer egin behar da Nagusilaneko boluntario izateko?

J.A.: Laguntzeko interesa duen edonork Debako bulegora etorri (Simon Berasaluzeko eraikinean) edo Nagusilane Donostiako egoitza nagusira deitu behar du. Besoak zabalik hartuko dugu etortzen den edonor.



Debako boluntarioak iaizko Gure Balioak sarietan, Eibarren. Itziar Aranberri eta Belen Gonzalez taldekideak falta dira argazkian.

Zuek zenbat urte daramatzazue elkartean? Nola laburbilduko zenukete urte hauetako ibilbidea?

G.I.: Taldea Alejandro Goikoetxea zenak sortu zuenetik nago ni bertan. Garai hartan, gauza asko egiten genien: beharra zuten guztiekin zumardira irteten ginen paseatzera, meriendak ere antolatzen genituen, eta irteerak ere egiten ziren noizbehinka. Ezin dut nahi dudan guztia egin adinagatik, baina, egia esan, oso pozik nago urte hauetan lagundu ahal izan dudan guztiagatik.

J.A.: Ni beranduago batu nintzen taldera, 2021ean. Esperientzia positiboa izaten ari da, eta asko ikasten ari naiz. Aurretik beste lan batzuk eginak nituen boluntario gisa han-hemenka, baina jubilatatu ondoren iruditu zitzaidan herrian beste gauza batzuk egiteko garaia zela. Urte askoan Zumaiako zaharren egoitzan aritu nintzen lanean eta, sektorea ondo ezagutzen nuen, Nagusilan bezalako elkarte batean laguntzeko aukera izango nuela pentsatu nuen.

Boluntario lanean aritzeak zer eman dizue maila pertsonalean?

J.A.: Niri bakea ematen dit. Jardueretara pozik joaten naiz, eta are zoriontsuago itzultzen naiz. Bizitzak eman didan oparia izan da esperientzia hau. Niretzat ohorea da zaintzen ditugun pertsonekin eta haien familiekin harremanetan egotea.

G.I.: Inoiz ez diot neure buruari hori galdetu. Baina argi neukan jubilatzen nintzenean bakarrik aurkitzen diren adineko pertsoneri bisitak egiten hasi behar nuela. Eta horrela hasi nintzen eta horretan jarraitzen dut oraindik ere. Pertsona horri asko lagundu diozula pentsatzen duzu, baina askoz handiagoa da zuk bueltan jasotzen duzun esker ona, eta horrek ondo sentiarazten nau.

Gure Balioak sariarekin bi aldiz egin diote aitortza Debabarreneko Nagusilan elkarteari (2019an eta 2024an), ibilbide honetan egindako lana nabarmenduz. Pozik zaudete errekonozimendurekin?

G.I.: Herri askotan ari gara lanean, eta pozgarria iruditzen zait Gure Balioak bezalako sari bat jasotzea, eta are gehiago gutaz bi aldiz gogoratu izana. Horrek erakusten du ez direla gutaz ahazten.

J.A.: Zerbait ondo egiten dugu, nonbait, gutaz oroitzeko eta egiten dugun ahalegina birritan saritzeko; norbaitek baloratzen du gure lana. Nagusilanean eskualdeko herri guztietan eskaintzen ditu bere zerbitzuak, baita Euskal Herriko beste hainbat herritan ere, eta eremu horretatik kanpo beste ordezkari batzuk ere baditu. Hori guztia aitortu izana benetan pozgarria da taldeko kideontzat. Polita izan zen azken sariaren banaketa ekitaldia ere; taldeko kide gehienok joan ginen, eta arratsalde ederra pasa genuen.



**ELGOIBAR
BHI**

Artistiko musikala
Osasun-zientziak
Zientifiko-teknikoa
Humanitateak
Gizarte zientziak

2025-2026 ikasturtea
Batxilergoko
aurrematrikulazio epea:
martxoaren 31tik
apirilaren 11ra arte

Informazio bilera:
martxoaren 25ean,
18:00 | euskaraz
19:00 | gazteleraz

Ezenarro eraikineko aretoan (Mekan)



📞 943 89 93 16

🌐 www.elgoibarbhi.eus

✉️ 013431aa@hezkuntza.net



Mozorro eta kolore festak lagatako irudiak

Otsailaren 27tik martxoaren 4ra bitartean murgildu ziren Deba eta Itziar inauterietan. Aurtengo egitarauak ohiko osagaiak izan ditu, hala nola haurrentzako jolasak, kalejirak, desfileak, lehiaketak, txokolate-jana, Talent Showa... Eta, beste behin ere, larunbata (martxoak 1) izan zen egunik indartsuena; herritarrek irudimenez eta umorez betetako mozorroak atera zituzten kalera. Argazkitan jaso dugu festa giroa.

Argazki gehiago:





Berriketan.eus-en argazki lehiaketako publikoaren saria: Ipuinak.

Argazki lehiaketako sari nagusia: Laka hair ileapaindegia.

Abian da Zaintza Ekosistemaren bigarren fasea



Zaintza Ekosistemak sendotze bidean jarraitzen du. Debako Udalak sustatutako eta Matia Fundazioak gidatutako proiektuaren bigarren faseari ekin diote, helburu nagusi batekin: udalerrian zaintza eredu partekatua sustatzea eta errotzea, eta, etorkizunean, zaintza erantzukizun kolektibo bihurtzea.

Azaldu dutenez, iaz garatutako lehen fasean, talde eragile batek zaintza ekosistemaren oinarriak eza-

rri zituen. "Egindako lanari esker, zaintzaren egoerari buruz hausnartu ahal izan zuten, baita udalerrian behar den zaintza azpiegituraren oinarriak ezarri ere". Ildo horretan, bigarren fasean, aurrez hasitako lanari "jarraipena eta egonkortasuna" ematea izango da helburua, "zaintza bizitzako oinarrizko elementu gisa sendotuz".

Helburu hori lortzeko, talde eragilea mantenduko da, baina talde

eragile horri talde operatibo bat gehitu zaio bigarren fase honetan, "zaintza ikuspegi desberdinetatik aztertzeko eta orain arte egindako lana osatzeko".

Hausnarketa eta koordinazioa

Adierazi dutenez, talde operatiboek zaintzari buruzko hausnarketa eta koordinazioa egitea izango dute helburu. Hainbat esparrutan ariko dira: soziosanitarioa, zerbitzuak, komunitatea, zaintzaile afektiboak eta etxeko zaintzako profesionalak.

Talde eragilearen eta talde operatiboaren artean "lotura estua" izango dela azaldu dute, izan ere, "talde eragileko kide batzuek aktiboki parte hartuko baitute talde operatiboetan, koordinazio eraginkorra eta prozesuaren ikuspegia bermatzeko".

Horrez gain, udalak hainbat ekin-tza osagarri egingo ditu, hala nola udal langileentzako zaintza arloko prestakuntza eta gizarte zerbitzuekin lanketa espezifikoak.

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA

Hondartza kalea, 3-4 behea - 31 P.K.
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249
Mug.: 618 214 282

sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

k
kutxabank

SUKIA
Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 29
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)

ASKETA, S.L.
ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

K21
KALITATEA
Enpresa Registrada Nº 2.105.048
NIVEL 2

Bar LOREA
"Orotariko tartak etxean eginak"

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tfnoa.: 943 191 095

Umorea, musika eta magia aukeran datozen asteotako Kultur Elkarteko egitarauan



Martxoaren 21ean, stand up probalekuaren saio berri bat hartuko du Kultur Elkarteak, 20:00etan. Umoregile hasi berriak eta esperientziadun bakarrizketariak ariko dira Barretegian; Eñaut Zuazok, Antton Telleriak, Manex Astigarragak, Lide Arregik eta Markel Ramosek parte hartuko dute ikuskizunean.

Hilaren 29an, berriz, Ruper Ordorika eta Arkaitz Miner musikarien kontzertua izango da. Ordorika Deban izan zen 2023ko apirillean ere, eta bakarka aritu zen Kultur Elkartean eskainitako bi emanaldietan. Oraingoan, ordea, zuzenekoetan bi-

delagun duen Mugalaris taldeko Miner (biolina, mandolina, gitarra...) izango du ondoan. Ordorikaren diskografia osoaren errepaso egingo dute zuzenekoan (20:00etan).

Apirilari dagokionean, Iago mago-ren *Misterioaren maisua* magia ikuskizuna antolatu dute, KulturEkin egitasmoaren baitan. Haurrei nahiz helduei zuzendutako hitzordua hilaren 11n izango da, 20:00etan. Umorea eta magia uztartuko ditu Iago Azkue mago azpeitiarraren saioak. Emanaldira joateko sarrerak salgai daude jadanik *labur. eus/iagomagokulturekin* estekan.

Dena prest dute Itziarren aurtengo Kardantxulo Eguna ospatzeko



Egun osoko egitaraua antolatu du Itziarko Gazte Asanbladak martxoaren 22rako, eta ekimenetan parte hartzeko deia egin die herritarrei.

10:00etan plazan elkartu eta mendi irteerarekin emango diote hasiera Kardantxulo Egunari. 13:00etan, gazteak poteoan irten go dira Kalebarrenetik, eta 14:30ean *Gure lurrekin negoziarik ez* pankarta pintaketari ekingo diote. Ondoren, herri bazkaria egingo dute frontoian.

17:00etan kontzertu akustikoa izango da Burugorri (Malen eta Nagore), eta Latuna Bando Txaranga kalez kale arituko da 19:00etatik aurrera. Eguna biribiltzeko, karaokea antolatu dute Burugorri. Aurtentzen, 'Jostailuak' da moztortzeko aukeratu duten gaia.

Debako Musika Bandak bazkideak omenduko ditu martxoaren 29an



Urtero bezala, Debako Musika Bandak bazkideen omenezko kontzertua iragarri du aurten ere. Hitzordua martxoaren 29an izango da, 12:30ean, Santa Maria elizako klaustroan; oraingo honetan, ez dute ondorengo bazkaria eta dantzaldia egingo Bikain jatetxean.

Musikariek azaldu bezala, bazkideei eskerrak emateko baliatuko

dute emanaldia. "Gaur egun, 300 bat bazkide ditugu, eta herritar horien babes eskertu nahi dugu beste behin ere". Bide batez, gogorarazi dute bazkide egiteko aukera zabalik izaten dela urte osoan. Kontzertuetan egin daitezke bazkidetzak, baita Interneten ere, sare sozialen bitartez. Helduen urteko kuota 12 euroan eskaintzen dute, 12 urtetik beherakoena 6 euroan, eta familiarra (hiru kide baino gehiagorena) 30 euroan; askotariko opariak zozkatzen dituzte bazkideen artean.

Zerua eta infernua

Arg.: ARITZ MANCISIDOR

Txile kontraste handiko herrialdea da; bereak ditu glaziar eta fiordoak hegoaldean, basamorturik lehorrena iparraldean, eta dozenaka sumendi aktibo, Andeen bizkarrezurrean. Horietako bat da San Jose, 6.000 metroko langa gainditu nahian, Santiago hiriburutik kilometro gutxira. Zerua eta infernua beste inon baino gertuago.





“Ekiberrik bere garaian izan zuen distira hura berreskuratzea gustatuko litzaidake”

JON MONTIEL AGIRRE • Ekiberri Judo Klubeko arduraduna



Hainbat urteko geldialdiaren ondoren, Ekiberri Judo Klubak bere jarduerari ekin dio berriro. Proiektua Monti ezizenez ezagunagoa den Jon Montielek (Eibar, 1986) jarri du martxan, eta herritarren aurrean aurkeztuko du martxoaren 29an, Ikigai zentroan. Klubaren aurkezpen ekitaldia aitzakia hartuta, orain arteko ibilbideaz eta etorkizuneko asmoez hitz egin dugu elkarrizketan.

Umetan murgildu zen judoan Jon Montiel. 9 urterekin hasi zen entrenatzen, Manu Agirre zenaren esanetara, eta hainbat urtez lehiari aritu ondoren, 2010ean utzi zuen, lesio baten ondorioz. Tatamitik urrun eman ditu hainbat urte, *judogia* jantzi gabe, baina gogoz itzuli da hainbeste momentu on eman zizkion kirol horretara. Orain berriro jarri du martxan Ekiberri Kluba eta, aldi berean, hirugarren Dan maila eskuratzeko azterketa prestatzen ari da.

Zergatik erabaki duzu kluba berriro martxan jartzea, urteetako geldialdiaren ostean?

Duela pare bat urte hil zen, 2022ko azaroan, Manu Agirre Ekiberri Klubaren sortzailea. Herritar askoren irakasle izan zen, eta, egia esan, ahalegin handia egin zuen herrian arte martzial hori bultzatzeko. Lesio baten ondorioz, aspaldi utzia nuen kirola, baina Manu hil zenean, berriro praktikatzen hasteko gogoa piztu zitzaidan; neure buruari zor nion zerbait zen. Irakaslea naiz eta eskolak ematen ditut hainbat lekutan, eta Manu Agirreraren omenez judoa sustatzeko ahalegina egin behar nuela iruditu zitzaidan. Izan ere, kluba desagertu zenetik, 2006. urte inguruan, ez da egon



herrian kirol hori eskaintzen edo sustatzen duen talderik. Arrazoi horregatik erabaki nuen, hain zuzen, Ekiberri Klubaren proiektua berriz ere abian jartzea. **Bistan da arte martzial hau maite duzula. Zer toki eduki du judoak zure bizitzan?**

Haurtzaro eta gaztaro osoa eman nuen judoan. Ia astebururo ibiltzen nintzen Manurekin, batera eta bes-



“Irakaslea naiz eta eskolak ematen ditut hainbat lekutan, eta Manu Agirrearen omenez judoa sustatzeko ahalegina egin behar nuela iruditu zitzaidan”

klubarekin bai Manurekin. Bestalde, beste helburuetako bat Deban kirol eskaintza handitzea da.

Martxan hasita zaudete dagoeneko?

Bai, urtarrilean hasi ginen, eta 6 eta 12 urte bitarteko bi haur talde ditugu, momentuz. Ni oraindik ere 'birziklatze prozesuan' nagoenez, Hegoi Esteban Manuren lagun eta Eibarko Kalamua Judo Taldeko arduradunak ematen dizkie umeei eskolak. Saioak ostiraletan izaten dira, baina datorren ikasturtean eskaintza zabaltzea da gure asmoa. Izan ere, asteburuaren atarian egonik, ostiralak ez dira egun aproposenak izaten; eskolak beste egun batzuetan ere eman nahiko genituzke, eta maizago.

Zeintzuk izango dira hurrengo urratsak eta etorkizunerako erronkak?

Gustatuko litzaidake ikasleek, denborarekin, lehiaketetan eta txapelketetan parte hartzea, guk txikitzen egiten genuen bezala. Federazioaren egutegian hainbat txapelketa daude aurreikusita, eta helburua pixkanaka horrelako hitzorduetarako prestatzea litzateke. Bestalde, ondo legoke klubaren eskaintza gazteei eta helduei ere zabaltzea.

Proiektua aurkezteko ekitaldia prestatzen ari zarete. Ez da, ordea, ekitaldi arrunta izango. Zer aurreratu dezakezu?

Aurkezpena martxoaren 29an egingo dugu, 11:00etan, Ikigai zentroan (Zesterokua Plaza, 2). Lehenik eta behin, egungo proiektuaren helburua azalduko dut, eta, ondoren, udalerriko aurreko klubeko sortzaileek beren ibilbideaz hitz egingo dute: sorrera, hastapenak, bilakaera... Amaitzeko, Manuri omenaldi txiki bat egingo diogu eta bertaratzen diren herritarrei haiketako emango diegu. Ekitaldi berezia izango da, bai. Omenduaren alarguna eta Gipuzkoako Federazioko kideak ere gonbidatu ditut, eta asko gustatuko litzaidake Manurekin harremana izan zuten guztiak hitzorduan izatea. Horregatik, aurkezpenera joan nahi duen orok ateak zabalik izango dituela gogorarazi nahi dut.

tera, lehian. Urte asko eman ditut praktikatu gabe, baina duela urtebete jiu-jitsuan hasi nintzen eta tatarira igo nintzen unean zirrara berezi bat sentitu nuen gorputz osoan. Judoarekin bizi izan nituen momentu on guztiak etorri zitzaizkidan burura eta argi izan nuen berriro heldu behar niola. Egia esan, une hori erabakigarria izan zen abiatu berri dudana proiektua martxan jartzeko. Gainera, orain buru-belarri ari naiz entrenatzen, eta duela gutxi hasi naiz hirugarren Dan maila eskuratzeko azterketa prestatzen ere.

Zuk bakarrik heldu diozu Ekiberriren proiektuari edo beste norbaiten laguntza izan duzu bidean?

Nire buruan neukan zerbait izan da. Beraz, bakarrik murgildu naiz proiektuan. Beste hainbat lekutan bezala, Ikigai zentroan ere eskolak ematen ditut, eta toki egokia iruditu zitzaidan egitasmoa berriz ere Deban abiatzeko. Aurten tatamia jartzea erabaki dugu eta horrek judo eskolekin hasteko aukera eman dit.

Zein da zure helburu nagusia?

Ekiberrik bere garaian izan zuen distira hura berreskuratzea gustatuko litzaidake. Kluba oso ezaguna izan zen herrian, eta adin batetik gorako jende askok badu haren berri. Sasoi batean, ume ugari ibili ziren bertan, eta urte haietan jende askok izan zuen harremana bai

Martxoa / Apirila

MAR. 21 (OSTIRALA)

BASTIÑUIXAN

16:30 Zumardiko kioskoa.

BARRETEGIA

20:00 Umorezko bakarriketak. Kultur Elkarte.

MAR. 22 (LARUNBATA)

KARDANTXULO EGUNA

Egitarauari buruzko informazioa 23. orrialdean.

TXIRRINDULARI PROBA

10:40 (Kadeteak). Foruen Plaza.

LASTUR FAMILIAN

11:00 San Nikolas Plaza. Erreserbak: geogarkea.eus.

MAR. 23 (IGANDEA)

MENDI IRTEERA

07:00 Urkiola-Santikurutzbarrak. Paseo estalia.

ZINEMA HAURRENTZAT

17:00 'Lagunak erreskatera'. Kultur elkarte.

AURKEZPENA

18:00 'Gazteon eskutik independentziara'. Gaztetxea.

ZINEMA

19:00 'A tiempo completo', Debadezineren eskutik. Kultur Elkarte.

MAR. 24-28

ZAPOREAK-EN ERRONKA

Informazioa 14. orrialdean.

MAR. 27 (OSTEGUNA)

IBILALDIA

09:40 Orio-Zarautz, Arbilen eskutik. Tren geltokia.

ITSASPEKO ADINZIKLOA

15:20 Eguneke Zentroa.

CIMASUB ZIKLOA

18:30 Kultur Elkarte.

MAR. 28 (OSTIRALA)

BASTIÑUIXAN

16:30 Zumardiko kioskoa.

KUADRILLEN ARTEKO JOLASAK (EUSKARALDIA)

20:00 Plaza Zaharra.

MAHAI-INGURUA

19:00 'Gaurko eta biharko liburutegiak'. Kultur Elkarte.

MAR. 29 (LARUNBATA)

TXIRRINDULARI PROBA

10:15 (Juniorrak). Foruen Plaza.

AURKEZPENA

11:00 Ekiberri Judo Kluba. Ikigai zentroa.

BANDAREN KONTZERTUA

12:30 Elizako klaustroa.

KULTUREKIN

20:00 Ruper Ordorika eta Arkaitz Miner. Kultur Elkarte.

MAR. 30 (IGANDEA)

ZINEMA

19:00 'La habitacion de al lado'. Kultur Elkarte.

API. 4 (OSTIRALA)

KUADRILLEN ARTEKO JOLASAK (EUSKARALDIA)

20:00 Plaza Zaharra.

API. 5 (LARUNBATA)

MERKATU TXIKIA

09:30 Paseo estalia.

API. 6 (IGANDEA)

ZINEMA

19:00 'La virgen roja'. Kultur Elkarte.

API. 7 (ASTELEHENA)

PENTSIODUNEN ELKARRETARATZEA

12:00 Foruen Plaza.

API. 10 (OSTEGUNA)

HITZALDIA

18:00 'Elikadura jarrera osasungarriak'. Kultur Elkarte.

API. 11 (OSTIRALA)

KUADRILLEN ARTEKO JOLASAK (EUSKARALDIA)

20:00 Plaza Zaharra.

KULTUREKIN

20:00 Iagomagoren magia ikuskizuna. Kultur Elkarte.

API. 12 (LARUNBATA)

BARRA KLASIKOA

12:30 Portuko pasealekua.

ANTZERKIA

17:30 'Art-Ilusio'. Foruen Plaza.

API. 13 (IGANDEA)

IPUIN KONTAKETA

17:30 Ispiluen gela.

ZINEMA

19:00 'Divertimento'. Kultur Elkarte.

API. 27 (IGANDEA)

MARTXA ZIKLOTURISTA

08:00 Foruen Plaza.

ZINEMA

19:00 'La trenza'. Kultur Elkarte.

DIRULAGUNTZAK

Alokairua ordaintzeko dirulaguntza deialdia
Aurkezteko epea: apirilak 10.
Informazioa: deba.eus.



ZAINTZAKO BOTIKA Egunez (09:00-22:00)

ZALDUEGI

Martxoak 21, 22, 23, 31 eta apirilak 1, 2, 3, 18, 19, 20.

BURGOA

Apirilak 4, 5, 6, 14, 15, 16, 17.

Larunbat goizetan beti bat irekita (09:30-13:00)

BURGOA Martxoak 29 / Apirilak 5, 26.

ZALDUEGI Martxoak 22 / Apirilak 12, 19.

OHIKO ORDUTEGIA

Astehenetik ostiralera
(09:00-13:45 / 16:30-19:30)

Guardia egunetako igandeak
eta jaiegunak (09:00-12:30)

Itziarke botikina (09:00-12:30)

BURGOA 667 33 88 90
ZALDUEGI 669 26 22 01



Eskelak



Hildakoen eskelak, urteurrenak eta oroigarriak argitaratzen dira atal honetan. Horetako bat jarri nahi izanez gero, 632 04 33 22 telefonora deitu edo idatzi berriketan@berriketan.eus helbidera.

Eskela guztiak berriketan.eus/eskelak estekan egongo dira ikusgai.



ETXEBERRIA
EHORZKETA-BEILATOKIA

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

943 741 327 (24 orduz) / 635 756 295 / 629 635 203

Kutxak, trasladoak eta koroak.
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentruetan zerbitzuak.



Deba
Hortz klinika

Hondartza Kalea, 20
20820 Deba, Gipuzkoa

info@debaklinika.com
T. 943 19 28 19

Odontologia orokorra
Kirurgia
Implanteak
Ortodontzia tradizionala
Invisalign ortodontzia (Ikusezina)
Haurren odontologia

* Interesik gabeko tratamendu-finantzaketarako aukera ere eskaintzen dugu.

Uzuri
optika audio



**PILARIK GABEKO
AUDIFONOAK
PROBATU
HILABETEZ DOAN**

Ostolaza kalea 7,
20820 Deba
Tel: 943 19 21 92

RPS: 183/12




Seven Clovers
Irish pub

943 191 295

Taxi Alain
Zure zerbitzurik onena



636 135 008 • www.taxideba.eus




SUJIKO

Nola jolastu?

Denbora-pasa matematiko honen helburua lauki-sarean 1etik 9ra bitarteko zenbaki guztiak kokatzea da, bat ere errepikatu gabe. Zirkulu bakoitzaren inguruan dauden lau zenbaki baturak zirkulu barruan agertzen den zenbakiaren balio bera izatea lortu behar dugu. Zorte on!

Erantzuna:





Infomaitemindu →

Bidali

ALTA 747 444 777

zenbakira eta jaso Gipuzkoa eta Foru Aldundiari buruzko informazio garrantzitsuena.



GIPUZKOA
Foru Aldundia



www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95



Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

Arteondo
Autobusak S.L.

arteondo@arteondo.es • 943 19 93 34



Sukalde eta etxe altzarien
erakusketa izugarria
3000m²

Itziaroko gaina

T.: 943 19 91 00

F.: 943 19 91 01

ITZIAR-DEBA (Gipuzkoa)

endaneta@mueblesendaneta.com
www.mueblesendaneta.com



ITURLAN, S.L.

Iturgintza - Berogailuak

Mogel kalea, 1 - Behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tfno. Mugikorra: 635 717 732
Tfno.-Fax: 943 192 553
fontaneriaiturlan@iturlan.com



Kolegiatu zkia.: 20001123

Amaia & Esnaola

ODONTOLOGIA

Fermin Calbeton 19- 3 ezk. Eibar

943 20 72 17 | 660 42 28 08

amaia@esnaolaodontologia.com

ALBIZU
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27
943 19 14 47
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Mikel
ITURGINTZA

- GASA
- BEROKUNTZA
- ENERGI TERMIKO
- ETA BERRIZTAGARRIAK



Hondartza 10 behea,
20820 Deba

T. 943 191 774

M. 699 975 206

info@mikeliturgintza.eus

Calbeton



JATETXEA

Agustín
Larrañaga Elorza

Denboraldiko platerra
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)

ENGLISH
SQUARE



SCHOOL
OF ENGLISH

Ikasi
ingeleza
atzerrian

Sokagin kalea 12, DEBA
648 268 206

info@english-square.net



Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

Antxustegi

Zure ametsak sukaldatzen!



www.antxustegi.com



Antxustegin behar duzun dena topatuko duzu. Ez eman buelta gehiagorik; zatoz eta ezagutu gure sukalde aukera zabala!



ZERAMIKA
ETA HARRIA



LURZORU
LAMINATUA



MARGOZTUTAKO
PARERA



BAINUGELA



BURDINDEGIA



ERAIKUNTZARAKO
MATERIALAK



SUKALDEAK

Olaso Olasope, 5, industriagunea- 20870 Elgoibar - 943 743 344 / 943 740 692